

PARKE NAZIONALEN SAREAN IKERKETA ZIENTIFIKOA **EGITEKO PROIEKTUAK 2017**

Proiektuen ezaugarriak:

Proiektuak jakintza zientifiko berria lortzera bideratutako ikerketak izango dira eta natura eta parke nazionalen eginkizuna bideratzen dituzten printzipioei aplikatu ahalko zaizkie. Bestalde, proiektu horiek Parke Nazionalen Sareko Ikerketa Programako lehentasunezko ildo bat edo batzuk izan beharko dituzte erreferentzia.

Honelakoak izan daitezke proiektuak:

- Diziplina bakarrekoak edo diziplina anitzekoak.
- Indibidualak edo koordinatuak. Koordinatuak bi azpiproiektu edo gehiagok osatuta egongo dira, eta zenbat azpiproiektu hainbat ikertalderen ardurapean egongo dira, taldeok erakunde bereko edo erakunde desberdinetakoak izanik, baina unibertsitate sail edo ikergune desberdinetakoak beti ere.

Proiektuek Parke Nazionalen Sareko parke bat edo batzuk izan beharko dituzte erreferentzia:

<http://www.mapama.gob.es/eu/red-parques-nacionales/nuestros-parques/>

Lehentasunezko ikerketa ildoak:

1. Aldaketa globalaren eta parke nazionaletan eta horien eragin eremuan garatutako jarduera sozioekonomikoen arteko elkarrekintzak.
2. Aldaketa globalaren eragina eta jarraipena parke nazionaletako ekologian: biodibertsitatearen gaineko eragina, haren osagaiak eta prozesuak, espazioarekin zein denborarekin lotutakoak. Estresaren adierazleak eta haren kalitatearen ebaluazioa.
3. Urrakortasuna aldaketa globalak eragindako muturreko gorabeheren aurrean.
4. Espezie exotiko inbaditzaileen eragina eta jarraipena, arreta berezia jarritz parke makaronesikoetan. Ondorioen murrizketa.
5. Aldaketa globala gertatzen ari den testuinguru batean gaudelarik, parke nazionaletako sistemetan egokitzapen neurriak aplikatu, jarraitu eta ebaluatzeko zientzi oinarriak.

Proiektuen iraupena:

Proiektuen iraupena 3 urtekoa izango da, diru laguntza eman denetik aurrera.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- a. Doktore titulua.
- b. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- c. Ezin izango da agertu ikertzaile nagusi gisa eskaera batean baino gehiagotan. Hala ere, beste proiektu bateko ikertaldeko kide gisa ager daiteke.
- d. Deialdiak ez du ikertzaile nagusi bat baino gehiago izatea baimentzen.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

- b. Laguntzaren eskatzailea ez den beste erakunde batekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea. Kasu horretan, jatorrizko erakundeak egindako jatorrizko baimenak aurkeztu behar dira proiektuan parte hartzeko.

OHAR GARRANTZITSUA: Baldin eta laguntza gauzatu bitartean ikertaldeko ikertzaileei UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, ezin dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2017ko abenduaren 11	Ikertzaile nagusia	Bidali "Proposatutako taldea berrikusteari buruzko eranskina": convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2017ko abenduaren 21	Ikertzaile nagusia	Amaiera eta eskaera bidali aplikazio informatikoaren bidez. Jakinarazpena mezu elektronikoa bidez, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidalita, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaeraren sinadura digitala egin dezan. Ikertzaile nagusiak dokumentu hauek bidali beharko ditu, barruko posta bidez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdi Atalera (Leioa): <ul style="list-style-type: none"> - Proiektu berarekin beste edozein laguntza lortu edo eskatu badu, eskuz egindako jatorrizko sinadura biltzen duen adierazpena, zenbatekoa adierazita. - Proiektuan parte hartzeko eskatzailearena ez beste erakunde batzuei atxikitako taldekideen jatorrizko baimenak.
2017ko abenduaren 27ko 15:00ak	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Eskaerak aurkezteko epearen amaiera.

Ikertzaile nagusiek aplikazio informatikoaren bidez (<https://sede.micinn.gob.es/proyparques>) beteko dute eskaera. Bestalde, memoria zientifiko-teknikoaren eredu erantsiko dute eta eskatzen diren gainerako agiriak. Eskaera bete ondoren, hori bide telematikoa erabiliz balidatu eta bidaliko dute. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak sinadura digitala erabiliko du aurkeztutako eskaeretan.

Aplikazioan erantsi beharreko agiriak:

- a. Eskaera orria: Bide telematikoa erabiliz beteko da:
<https://sede.micinn.gob.es/proyparques>

- b. Memoria zientifiko-teknikoa, webguneko ereduaren arabera.
- c. Eskaeran parte hartzen duten ikertzaile guztien CVa. Fitxategi horiek PDFn aurkeztuko dira eta ez dira 4 Mb-tik gorakoak izango.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidali beharreko jatorrizko dokumentuak:

- a. Proiektu berarekin beste edozein laguntza lortu edo eskatu badu, eskuz egindako jatorrizko sinadura biltzen duen adierazpena, zenbatekoa adierazita.
- b. Proiektuan parte hartzeko eskatzailearena ez beste erakunde batzuei atxikitako taldekideen jatorrizko baimenak.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUko proiektuek beren aurrekontua aurkeztuko dute kostu marjinaletara mugatuta.

Hauek izango dira kostu hautagarriak aurrekontua prestatzerakoan:

- Pertsonalaren kontratazioa. Laguntza emateko teknikariak kontratatzeko aurrekontua bakarrik eskatu ahalko da, gehienez 40.000 € urteko.
- Material inbentariagarria: Ekipamendu txikia eta material bibliografikoa.
- Material suntsikorra.
- Bidaiak eta dietak.
- Beste gastu batzuk: Ikerketan laguntzeko instalazio handien erabilera, laginen analisia, datuak analizatzeko sistemen gaurkotzea, artikulua argitaratzeko tasak, etab.
- **Zeharkako kostuak: UPV/EHUren bidez aurkeztutako eskaerek zeharkako kostuen % 15a jaso beharko dute aurrekontuan.**
-

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua erabazten garapen arautegia argitaratzeko-jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko epea:

2017ko azaroaren 28tik abenduaren 27ko 15:00ak arte.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkaririk legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUko kontaktua:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Faxe: 94 601 35 50
- Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

<http://www.mapama.gob.es/eu/red-parques-nacionales/programa-investigacion/convocatoria-2017.aspx>